

## *Maria Angeles Zelaia Zubia*

*Oñati,  
Gipuzkoa  
(1946)*

Aurkibidea

**Biografia**



Araotz auzoko Elorto baserrikoa. 5 senide ziren. 18 urterekin joan zen kalera bizitzera. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Jesusa Zumalde](#) eta [Mari Tere Azkoitia](#)rekin batera.

## Zintak

### ONA-239

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-07
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

### ONA-240

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-07
- **Iraupena:** 28 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

### ONA-241

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-07
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. Hitanoa: batzuekin bai, besteekin ez

- **Erref:** ONA-239/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:57. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

#### Laburpena:

<p>Hika txiki-txikitatik egin du, baina berezia da honen erabilera, batzuekin egitera ohituta dagoelako, eta beste batzuekin ez zaiolako ateratzen. Begirune kontua ere bada, edozeini ezin zaiolako egin. Gurasoek egiten zioten hika, baina Maria Angelesekin haiei inoiz ez. Ahizparekin adibidez egin izan du beti, baina anaiari zuka.</p>

### 2. Auzotik kalera, alde handia I

- **Erref:** ONA-239/003
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Araozt auzotik kalera jaitsi zen Maria Angeles. Alde handia sentitu zuen hitz egiteko moduan, hitanoaren erabileran... Gaur egun lagunartean erabiltzen du hika, baina ez guztiekin.</p>

**3. "Edozeinei ezin hika egin"**

- **Erref:** ONA-239/004
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:04:08. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Mari Tere, Maria Angeles eta Jesusa harriturik gelditzen dira gaur egun hika egiteko moduarekin. Haiek hikarekin konplexuz beteta egon omen dira. Gaur egun, ordea, ohiturak aldatu egin dira. Adibidez, harrigarria da haientzat gazteek euren gurasoei hika egitea, baita bikotearekin hika aritzea ere.</p>

**4. Hitanoa, ohitura eta konplexua**

- **Erref:** ONA-239/015
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:17:13. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Auzotik herrira jaistean 'baserritar konplexua' entitzen zutela aipatzen dute, ia erdararik ez baitzekiten, eta euskara ere ezberdina zutelako. Bestetik, kalean baziren euren artean hika egiten zuten gizonak, baina ez zekiten emakumeari hika egiten.</p>

**5. "Araoztarkeriak"**

- **Erref:** ONA-239/017
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:19:36. **Bukatu:** 00:20:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Araoztik kalera jaistean hizkuntzarekiko eta izaerarekiko konplexuak izan zituzten hirurek. Euren euskara ona ez zela adierazteko askotan erabiltzen zen "arazokeriak" esabidea. Araoztarra izateak gaur egun dituen konnotazioak txarrak.</p>

**6. "Ya vienen las caseras"**

- **Erref:** ONA-239/018
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:20:43. **Bukatu:** 00:22:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena:**

<p>Araoztarrak baserri munduarekin lotzen zituzten beti, eta burla egiten zieten horregatik. Araozgoak beti elkarrekin egoten ziren, eta orokorrean mutil artean. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**7. "Euskarak ez zuen ezer balio"**

- **Erref:** ONA-239/020
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:22:48. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena:**

<p>Umeak zirenean euskarak ez zuen batere prestigiorik, kaltegarritzat zuten denek, eskolan dena erdaraz zelako. Erderaz ikastera jende mordoak joaten zen Araba aldera. Eskolan dena gaztelaniaz izateak eman zizkien arazoak. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**8. Eskola oso gaztetan utzi beharra**

- **Erref:** ONA-239/022
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:26:23. **Bukatu:** 00:28:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena:**

<p>Eskolara joateko gogorik ez zuten izaten, nahiago zuten etxean lanean gelditu. Eskolan gaizki pasatzen zuten, ez baitzuten erdararik ulertzen. Eskola, ordea, oso gaztetan utzi zuten, 12-13 urterekin, lanean hasteko. Gau eskolara joaten ziren gero. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**9. Hitz egin nahi, baina ezin**

- **Erref:** ONA-239/023
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:28:19. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Lanean hasi zirenean, erdaraz hitzik ez zekiten. Beharrarekin, azkenean, ikasi zuten. Inguruan erdaraz gaizki jakin baina jo eta ke erdaraz ari zirenak gogoratzen dituzte. Gaur egungo gazteen euskara.

**10. Zuka, hika eta berorika**

- **Erref:** ONA-239/025
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:30:57. **Bukatu:** 00:32:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Gurasoei zuka edo berorika, eta apaizari berorika. Errespetu kontua da hika egitea edo ez egitea. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**11. Hitanoa, gizonen artekoa**

- **Erref:** ONA-239/027
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Txikitatik hika erabili badute ere, hikaren erabilera ez da berdina izan gizonen eta emakumeen artean, ezta auzorik auzo ere. Hitanoa O&ntilde;atiko zein auzotan hitz egin izan den.</p>

**12. Hasieran zuka, konfiantzarekin hika**

- **Erref:** ONA-239/029
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:36:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Hitanoa erabiltzea ez zaie edozeinekin irteten. Hasiara batean zuka egiten dute, eta konfiantza izandakoan hika. Ez zaie erraza egiten gazteei hika egitea, baina penaz ikusten dute hitanoaren transmisio falta. Konplexuak hika egiteagatik. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

### 13. Hitanoa gaur egun hobeto ikusita al dago?

- **Erref:** ONA-239/030
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:36:21. **Bukatu:** 00:37:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Hitanoa gehiago baloratzen da gaur egun, eta erosoago sentiarazten ditu horrek hika hitz egiten dutenean. Eskatu ere egiten diete hika egiteko.</p>

### 14. Osasuntsu ikusten al duzue hitanoa Oñatin?

- **Erref:** ONA-239/032
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:37:41. **Bukatu:** 00:38:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Mutilen artean gordetzen dela konturatu dira, baina nesken artekoaren egoera txarra da. Seme-alabei ez diete transmititu, baina haserretzen direnean irteten zaie hika egitea. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

### 15. Emakumeen artean gaztelania nagusi

- **Erref:** ONA-239/034
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:39:40. **Bukatu:** 00:41:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Mutilek askotan euren artean hika egiten dute, baina ez diete emakumeei hika egiten. Euskara ere kasu askotan gizonen artean hobeto gorde da

tamalez. Araotzen, ordea, denek mantendu dute euskaraz egiteko ohitura. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 16. Zergatik galdu da noka?

- **Erref:** ONA-239/036
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:42:47. **Bukatu:** 00:44:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Aspalditik datorren kontua dela diote, izan ere, betidanik hitz egin dute gizonek euren artean bai euskaraz, eta baita hika ere. Emakumeeek, ordea, behin etxetik irtendakoan, ez zuten hika egiten, ordinariora zelakoan. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 17. Txakurrari hika

- **Erref:** ONA-239/037
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:44:09. **Bukatu:** 00:45:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Animaliei orokorrean hika egin izan diete, kasu gehienetan aginduak baitira. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 18. Zure buruari hika egiten al diozu?

- **Erref:** ONA-239/039
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:45:36. **Bukatu:** 00:46:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Gizonen forma erabili ohi izan dute askotan euren buruarekin hitz egitean. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 19. Zer ematen dizue hikak zukak ematen ez dizuenik?

- **Erref:** ONA-239/041
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:46:54. **Bukatu:** 00:48:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Konfiantza, ohitura, gertutasuna, naturaltasuna.</p>

**20. Hika galduko balitz, zer?**

- **Erref:** ONA-239/043
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:48:11. **Bukatu:** 00:48:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Altxor bat galtzea bezala litzateke. Umeei transmititzen ez bazaie galtzeko arriskuan ikusten dute.</p>

**21. Emakumeak galtzak jartzen**

- **Erref:** ONA-239/045
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:50:45. **Bukatu:** 00:53:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena:**

<p>Gaztetan gona gehiago erabiltzen zuten. Garai bateko jantziak, artilezko galtzerdiak eta albarkak. Berokiari buelta ematen zioten zaharra zegoenean. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**22. Umetako jolasak: sakaponak, torre-torreka...**

- **Erref:** ONA-239/046
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:53:06. **Bukatu:** 00:55:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena:**

<p>Errekreogan, frontoian... jolasean ibiltzen zirenekoak. Aixenak ateratzen ibiltzen ziren soka saltoan aritzeko. Frontoira mutilak hurbildu orduko alde egiten zuten neskek. Torre-torreka, gorde-gordeka, tabetara... Sakaponak gozoki-paperez margotzen zituzten. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 23. Txirikiletan jolasean

- **Erref:** ONA-239/047
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:55:04. **Bukatu:** 00:56:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Tratamenduak

### Laburpena:

<p>Txirikiletan ibiltzen ziren Errotabarrin eta txirikilalekuan. Berokiari buelta emanda aritzen ziren. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 24. Elurretako jolasa: goikoak behekoen kontra

- **Erref:** ONA-239/048
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:56:16. **Bukatu:** 00:58:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Tratamenduak

### Laburpena:

<p>Elur-pelotaka ibiltzen ziren, goikoak behekoen kontra aritzen ziren. Harria sartzen zuten elurraren barruan. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 25. Txorizotxo eguna ospatzen

- **Erref:** ONA-239/049
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:58:03. **Bukatu:** 00:59:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Euskara » Tratamenduak

### Laburpena:

<p>Inauterietako asteartean izaten zen Txorizotxo eguna, Araotzen. Opiltxoak egiten zizkieten euren amek. Oteari sua eman, txorizoak bertan jarri, eta erreta jaten zituzten auzoko umeez. Aitzulo kobazulo ingurura eta Aitzgainera joaten ziren txorizoak erretzera. Suaren gaintetik saltoka aritzen ziren. O&ntilde;atiko Hitanoa.</p>

## 26. San Elias egunean emakumeak lan eta lan

- **Erref:** ONA-239/050
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:59:41. **Bukatu:** 01:02:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena:**

<p>San Elias eguneko ospakizuna, bazkaria eta erromeria egoten zen. Beti gizonak eserita eta emakumeak lanean gogoratzen dituzte. San Elias ermita gaur egun. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**27. Garbitokiak, tertulian aritzeko aitzakia**

- **Erref:** ONA-239/052
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:02:51. **Bukatu:** 01:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

<p>Tertulian aritzeko aitzakia ziren garbitokiak emakumeentzat. Goiz osoa ematen zuten han. Iturrira ur bila joatea. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**28. Arropa garbigailua, asmakuntza ederra**

- **Erref:** ONA-239/054
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:06:08. **Bukatu:** 01:07:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena:**

<p>Etxera garbigailua eraman zuten lehen aldia. Irratia eta telebista. Kantuak eta nobelak gaztelaniaz. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**29. Mutilak tabernara, neskak ez**

- **Erref:** ONA-239/056
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:08:01. **Bukatu:** 01:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena:**

<p>Araotzen ez zen taberarik, saloia egon zen, baina geroago. Gaztetan ez

ziren tabernan sartzen, helduagotan, ordea, bai. Telefonoa zen tabernan, eta deiak nola egiten zituzten kontatzen dute. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

### 30. Gizonak eta emakumeak, baserriko lanetan

- **Erref:** ONA-239/058
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:11:03. **Bukatu:** 01:13:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

#### Laburpena:

<p>Hirurak aritu dira baserriko lanetan, gazte-gaztetatik, gustura gainera. Jan ohi zituztenak. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

### 31. Gari-jotzea eta arto-zuriketa

- **Erref:** ONA-239/059
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:13:59. **Bukatu:** 01:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Euskara » Tratamenduak

#### Laburpena:

<p>Gari-jotzean jandakoa, arto-zuriketako festa... Errosarioa errezatzea, beldurrezko istorioak... O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

### 32. Abadeari beldurra

- **Erref:** ONA-240/002
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:00:17. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Tratamenduak

#### Laburpena:

<p>Elizak indar handia zuen. Araotzen abadearekin harreman txarra izan zuten, beldurtuta izaten zituen umeak. Konfesatzera joan behar izaten zuten, eta ez zekitenean abadeari zer esan, txokolatea lapurtu zutela esaten zuten. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

### 33. Mutilekin dantza egiteagatik eskolatik bota

- **Erref:** ONA-240/003

- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:03:08. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

**Laburpena:**

<p>Urte batean abadeak mutilekin dantza egitea debekatu zuen. Batzuek kasurik egin ez, eta eskolatik bota zituzten. Don Josek ipinitako zigorrak. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

### 34. "Pentsamendu txarrak izan al dituzu?"

- **Erref:** ONA-240/005
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:11:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena:**

<p>Don Jose abadeak askotan galdetzen zien ea pentsamendu txarrak izan zituzten, zer ziren ez bazekiten ere. Abade gazteak herrian sartzen hasi zirenekoa. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

### 35. Sexuaz ezin hitz egin

- **Erref:** ONA-240/007
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:13:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena:**

<p>Sexuaz ez zuen inork hitz egiten, eta orokorrean oso gutxi jakiten zen sexualitatearen inguruan, animaliekin ikasitakoa besterik ez. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

### 36. Mutilek neskak etxera lagundu

- **Erref:** ONA-240/009
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:16:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena:**

<p>Dantzatzera joaten zirenean emandako kalabazak. Mutilek neskak etxera laguntzea. Azken abestia zein zen jakiten zuten, zein orduan etxera itzuli jakiteko. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**37. Pedro Joxeren disko-jogailua hautsi zutenekoa**

- **Erref:** ONA-240/010
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:16:29. **Bukatu:** 00:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena:**

<p>Behin Pedro Joxerekin haserretu eta haren disko-jogailua hautsi zuten. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**38. Gizakumeek baino libertate gutxiago**

- **Erref:** ONA-240/012
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:18:53. **Bukatu:** 00:20:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena:**

<p>Gizakumeek ardura gutxiago dutela sentitzen dute, umeen zaintzan, etxeko lanen banaketan... O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-05-14*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com